

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

2018ko EJZ ordaintzeko borondatezko epea

Jesus Berganza Gonzalez Erriberagoitiko Udaleko alkate-lehendakariak:

Jakinazten du: Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2018ko ordainagiriak kobratzeko moduan daudela.

Borondatezko epea 2018ko abenduaren 27tik 2019ko otsailaren 25era izango da. Borondatezko epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei kuotak premiamenduko betearazte bidez kobratuko zaizkie, ehuneko 20ko errekararekin, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banketxe edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal izango dutela ordainketa, udal bulegoetan hala eskatuta.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, zerga aurreko urteetako banku kontuan helbideratuta izaten jarraitzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Erriberagoitiko Udalari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, aurrerantzean jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Pobes, 2018ko abenduaren 27a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ